

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARDENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua

2022an herritarren partaidetza-proiektuetarako dirulaguntzak emateko Vitoria-Gasteizko udalaren deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak

Herritarren Partaidetza Zerbitzuak, Udalean herritarren partaidetza sustatzen duen aldetik, deialdi hau prestatu du Gasteizko udalerrian partaidetzaren kultura sustatzeko helburuarekin.

2022ko martxoaren 25ean, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu egin zituen 2022an dirulaguntzak emateko Vitoria-Gasteizko Udalaren deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Oinarri orokor horiek Udalaren webgunean kontsulta daitezke (vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute eskabidea aurkeztera.

1. Deialdiaren xedea

Herritarrei irekita dauden partaidetza-prozesuetatik sortzen diren gastuei aurre egiten laguntzea, horiek udalerriko elkarteek edo pertsonak (gutxienez 3ko taldeetan) sustatzen dituztenean. Prozesu horiek 2022an zehar garatu beharko dira eta bat etorri beharko dute Udalaren ildo estrategikoekin.

Beren edozein fasetan —diagnostikoa, gauzatzea eta/edo ebaluazioa— partaidetza-metodologia bat barne hartzen duten proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Partaidetza-prozesuaren definizioa:

“Eragile edo pertsona adierazgarrien parte-hartzearekin lotuta dauden parte hartzeko une edo ekintzen batura (tailerrak, talde-dinamikak, bilerak, erakusketa elkarreragileak, foro edo lantalde birtualak...), ebatzi beharreko gai edo arazo bati buruzko ikuspegi edo ikuskera desberdinak eskaintzeko.” EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarte.

1.1 Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:

Jarduera edo proiektua garatzeko beharrezkoak diren gastuak. Gastu horien kostua ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa. Honako hauetatik sortutako gastuetarako emango da dirulaguntza:

- a) Komunikazio-kanpainak: partaidetza-prozesuarekin lotutako prentsa, irratia, sareak, kartelak, inprenta-lanak...
- b) Dinamizazioak: partaidetza-metodologiak gauzatzeko langile-kontratazioak.
- c) Dinamizazio-saioetarako guneen erreserbak. Gizarte-etxeetako guneak erreserbatzen direnean, eskatzaileek ez dute ordaindu beharrik izango gune horien erabilera arautzen duen 7.11 ordenantza fiskaleko zortzigarren tarifa.
- d) Material suntsikorra erabiltzetik sortzen diren gastuak eta partaidetza-prozesuan programatutako ekintzetatik sortzen diren bestelako gastuak.
- e) Proiektuan parte hartzeko gonbita egin zaien dinamizatzaile eta/edo adituen minuta, bidaia eta dietetatik sortzen diren gastuak.

1.2 Diruz lagun ezin daitezkeen kontzeptuak:

- a) Entitate bateko bazkideei bakarrik bideratutako proiektuak.
- b) Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzen diren proiektuak.
- c) Elkarteko edo erakundeko kideen dieta- edo bidaia-gastuak.
- d) Eskaera egin duen erakundearen edo hiru pertsonaz osaturiko taldearen ohiko funtzio-namenduak sortutako zeharkako gastuak.

1.3 Gogoeta batzuk:

- a) Aurkeztutako aurrekontuak diruz laguntzekoak ez diren gastuak barne hartzen baditu, horiek aurkeztutako aurrekontutik kenduko dira.
- b) Amaieran gauzatutako aurrekontua jasotako dirulaguntza baino txikiagoa bada, justifikatu ez den eta/edo behar bezala justifikatu ez den kantitatea itzuliko da.

1.4 Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Dirulaguntza honekin batera, Vitoria-Gasteizko Udalaren, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuen beste dirulaguntza batzuk jaso ahal izango dira. Nolanahi ere, dirulaguntzekin eta gainerako iturriekin lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako programaren edo jardueraren guztizko kostua baino handiagoa.

2. Aurrekontu-Kreditua

Deialdi honen bidez ematen diren laguntzak 2022ko ekitaldian herritarren partaidetza-proiektuetara bideratutako udal-aurrekontuko 1822 9242 48014 partidako aurrekontu-kredituaren kontura ordainduko dira. Gehienez ere 24.000,00 eurokoa izango da laguntzaren zuzkidura.

3. Eskatzaileak

- Jarduera-eremua Gasteizko udalerrira duten irabazi-asmorik gabeko pertsona fisikoak eta/edo entitateak.
- Pertsona fisikoaren kasuan, ezinbestekoa izango da gutxienez hiru adindunek osatutako kolektiboa izatea (ikus kolektiboaren eranskina).

4. Informazioa eta dokumentazioa

Herritarren Partaidetza Zerbitzuak informazioa eta aholkularitza eskainiko dizkie dirulaguntza hau eskatu nahi duten erakunde, kolektibo eta pertsonari. Kontsultak 945161687 telefonora deituz edo p.ciudadana@vitoria-gasteiz.org helbide elektronikora idatziz egin ahal izango dira.

5. Aurkezteko epea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 30 egun baliodunen bitartean aurkeztu ahal izango dira proiektuak, azken egun hori barne. Ebazpena eman ondoren, erabilgarri zegoen aurrekontua agortu ez bada, deialdira proiektuak aurkezteko aukera irekiko da berriz ere.

6. Izapideak

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntzaren eskabidea.
- Proiektua, gidoiaren arabera.
- IFZren fotokopia.
- Entitate eskatzailearen edo eskatzaileen ibilbidearen laburpena.
- Banakoaren kasuan, taldea edo kolektiboa osatzen duten pertsonen nortasun-agirien fotokopiak, eta kolektiboaren eranskina.

7. Balorazio-irizpideak

IRIZPIDEA	AZALPENA	PUNTUAK
KOHERENTZIA	Antzemandako premien, finkatutako helburuen, proposatutako ekintzen eta egindako aurrekontuen arteko koherentzia	12
PARTAIDETZA MAILAK	Kontsulta	2
	Eztabaida	2
	Proposamena	2
	Partaidetza-prozesuan erabakitakoa gauzatzea	4
DISEINUA	Erabili beharreko partaidetza-metodologiak zehazten dira, baita garatu beharreko elkarlaneko ekintza zehatzak ere. Publiko parte-hartzailea eta tenporalizazioa ere sartzen dira	30
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	Prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ekintza zehatzak barne hartzen dituzte	6
ASKOTARIKO PARTE-HARTZAILEAK	Aniztasuna bilatzen du (sexua/generoa, adina, jatorria, kultura eta abar), baita jarrera eta diskurtso desberdinen arteko topaketa ere. Entitatetik kanpoko eragileen parte-hartzea sustatzen da	12
KOMUNIKAZIO-PLANA	Hainbat tresna erabiltzen dituzte askotariko publikoarengana iristeko (kartelak, sare sozialak, bilerak eta abar)	12
JARRITAKO FINANTZA-BALIABIDE PROPIOAK	Entitateak finantza-baliabide propioak bideratu ditu proiektura	Ehuneko 10 arte, 2 gehienez
		Ehuneko 20 arte, 4 gehienez
		Ehuneko 30 arte, 6 gehienez
		Ehuneko 40 arte, 8 gehienez
UDALAREN ZEHAR-ILDOAK	Programatutako jardueretan euskara erabiltzea sustatzen du	5
	Genero-berdintasuna sustatzen du	5

8. Dirulaguntza jaso ahal izateko programa bakoitzak gutxienez lortu behar duen puntu kopurua

Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 60 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira.

9. Proiektu bakoitzeko gehieneko dirulaguntza

9.1 Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan hiru mila eta bostehun eurotik (3.500,00 euro) gorakoa proiektu bakoitzeko.

9.2 Honako baremo hauek kontuan hartuta kalkulatu da dirulaguntzaren zenbatekoa:

a) Onartutako aurrekontuaren ehuneko 100era arte esleipen-irizpideen arabera 80 puntutik 100era bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

b) Onartutako aurrekontuaren ehuneko 90era arte esleipen-irizpideen arabera 70 puntutik 79ra bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

c) Onartutako aurrekontuaren ehuneko 80ra arte esleipen-irizpideen arabera 60 puntutik 69ra bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

10. Ebazpena

Dirulaguntzak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabideak izapidetzeko onartu ondoren, balorazioaren txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena igorriko dira, oinarri espezifiko hauetan ezarritako irizpideekin bat etorritz.

Ondorio horietarako, kide anitzeko organo eskuduna eratuko da eskabideak eta emakida-proposamena baloratzeko. Organo hori Herritarren Partaidetza Zerbitzuko teknikariek osatuko dute.

Era berean, Zerbitzuaren Administrazio Orokorreko teknikaria izango da organo izapidegilea, eta hark datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz. Izan ere, datu horien arabera egingo da dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, deialdia ebazteko organo eskuduna den aldetik, Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Gizarte Etheen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten du eskumen hori.

11. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, aldez aurreko ordainketa gisa, deialdia ebatzi eta deialdiaren ebazpena interesdunei jakinarazi ondoren, inongo bermerik jarri beharrik izan gabe.

Dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, pertsona edo entitate onuradunak eskabidean horretarako adierazi duen kontu korrontean.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta pertsona edo entitate onuradunak lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko badu oraindik. Era berean, ezin izango da dirulaguntza ordaindu baldin eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta ez baditu, ezta dirua itzultzeko prozedura ebatzi delarik zordun bada ere.

12. Dirulaguntza justifikatzeko modua

2022ko dirulaguntzen oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera.

Deialdi honen justifikazioa aurkezteko epea, 2023ko otsailaren 28an bukatuko da.

Ez da 6-J eranskina aurkeztu beharrik izango, ez baita zeharkako kosturik onartzen, oinarri hauen 1.2. puntuan adierazten den moduan.

13. Partaidetza-proiektua lantzeko proposatu den gidoia

Oinarriak.

Nor gara?.

Zergatik egin nahi da partaidetza-prozesu bat?.

Zein da hobetu nahi den arazoa edo egoera?.

Helburuak.

Zer lortu nahi da partaidetza-prozesuarekin?.

Proiektuaren deskribapena, metodologia eta jarduerak.

Partaidetza-prozesua nola garatuko den azaldu eta zein fasetara bideratuta dagoen adierazi beharko da: diagnostikoa, gauzatzea edo ebaluazioa.

Ezarriko diren partaidetzako jarduera eta metodologiak azaldu beharko dira, baita jardueren egutegia eta jarduerak non egingo diren ere.

Parte-hartzaileak.

Nork parte hartuko du?.

Profil jakineko zein entitate, kolektibo edo pertsona gonbidatuko dira, ikuspegi eta perspektiba desberdinak sartu direla ziurtatzeko?.

Komunikazioa.

Proiektuaren, jardueren eta ebaluazioaren zabalkunderako elementuak eta/edo sistemak.

Zer bide erabiliko dira prozesuan parte hartzen duten pertsonen arteko barne-komunikazioarako?.

Eta kanpo-komunikazioarako?.

Baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak:

– Entitateak dituen langileak. Saioak dinamizatzeko berariazko langileak izango diren adierazi.

– Gastuen zerrenda: dirulaguntzen ildo honetarako eskatzen den kopuruaren aurrekontu banakatua (publizitatea eta komunikazioa, dinamizatzeko lanak, eremuak, materialak edo beste batzuk alokatzea...).

– Diru-sarreraren zerrenda, eskatu diren, aurreikusten diren eta/edo jaso diren bestelako dirulaguntzak edo laguntza ekonomikoak barne.

Partaidetza-prozesuko konpromisoak.

Nola hartuko dira erabakiak?.

Prozesuaren gardentasuna, era bateko eta besteko egoeren aurreikuspena, prozesuaren itzulketa...

Planteatzen diren partaidetza-mailen azalpena (kontsulta, eztabaida, proposamena eta materializazioa).

Ebaluazioa.

Emaitzen eta partaidetza-prozesuaren ebaluazioa egiteko adierazleak.

Inkestak, elkarrizketak, ebaluazio-tailerrak...

ERANSKINA

Kolektiboentzat bakarrik.

Kolektiboa osatzen duten pertsonen zerrenda eta arduradunaren izendapena.

Behean sinatu dutenek honako hau aitortzen dute:

Kolektibo honetako kide direla:

– Kolektiboaren arduraduna honako hau dela

IFZ:

– Kolektiboak barne-funtzionamendu demokratikoa duela.

– Kolektiboko kide guztiek konpromiso bera hartzen dutela dirulaguntzaren xede den proiektua gauzatzeko (hala ez bada, zehaztu partaidetza-ehunekoa).

– Kolektibo honetako kideek ez dutela parte hartu Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntza edo dirulaguntzak oraindik justifikatu gabe dituzten beste elkarte edo kolektibo batzuetan.

Izen-abizenak

IFZ

Sinadura

1

2

3

4

5

6

7

8

(Kolektiboko kide guztien sinadurak).

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ren (e)(a)n.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 25ean

Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen

Saileko Administrazio Zerbitzuko burua

MARILÓ MOVILLA RIVAS